



# COVID-19 NEWSLETTER

Argentina 2020/06/03



## INPAKTU EKONOMIKOA

### Makro datuak

BPGaren bilakaeraren aurreikuspena 2020an  
% -4 eta % -7 bitartean

Lanpostuen % 64  
arriskuan – Langabezia

2020rako aurreikusitako urteko inflazio metatua

**% 44,4**

2019an: % 51,3

Hauek dira krisiak eta berrogeialdiak gogorren kolpatutako probintziak, sektore pribatuaren jardura soilik kontuan hartuta: Córdoba; Santa Fe; Buenos Airesko Hiri Autonomoa, Chaco, Neuquén eta Chubut. **75 egunetik gorako berrogeialdiaren** ondoren, une honetan Buenos Airesko metropoli-gunea (AMBA) da norbanako eta enpresentzako murrizketa gehien dituen eskualdea. Gune horrek bere baitan hartzen ditu CABA (Ciudad Autónoma de Buenos Aires) eta haren inguruko 60 km-ko erradioa, bai eta CABAtik hurbilen dauden Buenos Aires probintziako udalerrri guztiak. AMBATik kanpo, badaude 41 udalerrri Covid-19aren kasurik izan ez dutenak, eta beste 28 udalerrri tasa oso txikia dutenak (4 baino baxuagoa). Corrientes probintzia da koronabirusagatiko berrogeialdiaren bosgarren fasean dagoen bakarra, non dagoeneko posible baita tabernak eta gimnasioak irekitzea eta lan-bilerak egitea “normaltasun berriko” baldintzetan. Hauek dira berrogeialdiaren bosgarren fasera igartzeko zorian dauden gainerako probintziak: Jujuy (dagoeneko baimendu du barneko turismoa eta aztertzen ari da ikastetxeak berrirekitzea) eta Salta

Berrogeialdia hasi zenetik, Argentinako ekonomiak 8.400 milioi USD galdu ditu; aldi berean, Argentinako Errepublikako Banku Zentralak (BCRA) 500.000 milioi ARS-ko ekarpena egin zion Altxortegi Nazionalari, koronabirusaren aurkako laguntza-sortaren lehen finantzaketa-baliabidea bihurtu zelarik. Estatu Nazionalak apirilean, hau da, derrigorrezko isolamendu sozial prebentiboa (ASPO) inplementatu zen lehen hilabetean itxi zituen kontuak, zeintzuek 228.821 milioi ARS-ko defizit primarioa agertu zuten; gastu primarioa, berriz, 525.070 milioi ARS-koa izan zen, 2019ko apirilean baino % 96,8 handiagoa. Eta hori horrela da gobernuak neurri-sorta bat onartu zuelako larrialdi ekonomiko eta sanitarioari aurre egiteko

### Inpaktua sektore industrialetan


Oro har, enpresen % 25ek ez dute gutxieneko langileriarik produkzioari eusteko; enpresa industrialen % 70ek % 70eko beherakada jasan dute salmentetan. Datu ofizialen arabera eta urte arteko alderaketa eginda, ETE industrialen ekoizpena % 53 gutxitu zen joan den apirilean. Bestalde, Buenos Airesko probintzian kokatutako lantegien % 40k berriro ekin diote lanari



#### Automozioa

Autoen produkzio nazionala % 34,4 murriztu da. Apirilean ez zen ezer ekoitzi eta esportazioak % 88

jaitsi ziren. Terminalak martxan egongo dira berriro maiatzaren 18tik aurrera, baina segurtasun neurri zorrotzekin. Aurreikusten da 0 km-ko




220.000 unitate salduko direla (2019an saldutakoaren erdia). Sektoreko iturriek diotenez, berririkiera-portzentajea % 53tik % 78ra igaro da maila nazionalan, eta % 40tik % 70era Buenos Airesko probintzian. Halere, gerta liteke astebete barru automozio terminalak guztiz gelditzea, oraindik itxita dauden auto-zatien fabrikak irekitzen ez badira (batik bat Buenos Aires probintzian)

### **Energia**

Eskaera osoa % 23 murriztu da. Energia kontsumoa % 70 baino gehiago jaitsi zen martxoaren 20tik apirilaren 13ra sektore hauetan: automozioa, metalurgia, ehungintza eta eraikuntza. Petrolio ekoizpena % 60 murriztu da apirilean eta maiatzean, eta gasarena % 20. Apirileko energia-eskaera % 11,5 murriztu zen aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (azken 20 urteetako zifra baxuena)

### **Eraikuntza**

Berregealdian salbuetsitako jardueretako bat da apirilaren 13tik; urte arteko ehunekoarekin alderatuta, eraikuntzako jarduerak % 46,8 egin zuen behera martxoan. Datozen 45 egunetan 270 obra publiko jarriko dira martxan herrialde osoan, 50.000 lanpostu sortuz

 **Industria** % 17 jaitsi zen, eta hauek izan dira sektore kolpatuenak: mineral ez metalikoak,

metalaren oinarriko industriak, eta arropak eta oinetakoak. Sektore honek 22 jaitsiera erregistratu ditu azken 23 hilabeteetan. Datu ofizialen arabera, hauek izan ziren apirileko jaitsiera handienak: siderurgia (% 75), makinak eta ekipoak (% 59), meza ez metalikoak (% 41), oihalak (% 30), aluminioa (% 12)

Maiatzaren 10etik aurrera, 18 sektorek ekoizpenari berrekin ahal izango diote, betiere langileentzako segurtasun-baldintzak bermatzen badituzte. Hauek dira lehentasunezko sektoreak: automozioa, autoen zatiak, kimika, petrokimika, plastikoaren sektorea, metal-mekanikoa, zementua, oihalgintza, arropak eta oinetakoak


Oihalgintzak % 29 eskaseko gaitasun instalatua izan zuen martxoan, eta kalkulatu da apirileko adierazlea negatiboa izango dela (% 10)


### **Inbertsioa**


Inbertsioak urte arteko % 29,9ko beherakada izan zuen apirilean. Ekoizpeneko ekipo iraunkorren inbertsioak % 22,7 gutxitu ziren apirilean, eta ondorioz, beherakada % 13,7koa izan da urteko lehen lau hilabeteetan

## **Inpaktua zerbitzuetan**

Oro har, sektoreko enpresen % 52 ez da jarduera komertzialik garatzen ari, % 39ak jarduera partziala du, eta % 8ak bakarrik jarraitzen du normaltasunez lanean

 **Ostalaritza sektorea eta entretenimendua**  
Martxoaren 21ean itxi ziren. Aurreikusten da gastronomiak eta ostalaritzak % 25etik gorako jaitsiera jasango dutela aurten


 **Garraio publikoa**  
Garraio publikoaren erabilpena % 83 gutxitu da berregealdia hasi zenetik. Gaur egungo erabilera ohiko egun batean izango litzatekeenaren % 24koa da

 **Merkataritza eta zerbitzuak**  
Jarduera % 54 jaitsi da



## Inpaktua finantza sektorean (merkatuak, bankuen sektorea)

- ❖ **Kreditu-ildo bereziak** mikroenpresentzat eta enpresa txikientzat, gehienez % 24ko interes-tasarekin (interes estandarra % 40koa da); ildo hau ETE gehiagorengana zabaldu da Argentinako Banku Nazionalaren (BNA) bitartez, % 18ko tasa finkoarekin hasieran eta aldakorrekin gero (Badlar baino 5 puntu gehiago)
- ❖ Bankuetako jarduera geldirik egon zen martxoaren 19tik, eta partzialki hasi zen berriz apirilaren 13an. Publikoarentzako arreta txandaka antolatu da, eta telefonoz edo *home banking* sistema erabiliz eskatu behar da. Publikoarentzako arreta pandemia aurretik eskaintzen zenaren % 20 ingurukoa da
- ❖ Argentinako dolar-bonuek gora egin zuten maitzean, kasu batzuetan % 40 baino gehiagoko igoerekin, gero eta hurbilago dagoelako zor subiranoa (65.000 milioi USD inguru) atzerriko moneta eta legearen arabera berregituratzeko akordioa. Bestalde, ADRak % 15 hazi ziren. BCRAk kanbio-kontrola egokitu zuen erreserba gehiagorik ez galtzeko



## EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK

### Neurri fiskalak

- ❖ Kontribuzio patronalen ordainketa atzeratu edo % 95eraino murriztu da eta Estatuak konpentsatzen du langileen soldatagatik ordaindu beharrekoa
- ❖ Inportazio-zergak kendu zaizkie intsumo kritikoei
- ❖ Diru-sarrera Publikoen Administrazio Federalak (AFIP) ordainketak errazteko erregimen bat inplementatu zuen, 2020ko apirilaren 30a baino lehen iraungitzen ziren zerga, muga-zerga eta gizarte segurantzako ordainketetan sortu diren zorrak erregularizatzeko

### Finantzaketa pribatua eskuratzea (erakundeak eta beste batzuk)



- ❖ Hipoteka kredituak lortzeko erraztasunak 2020ko irailera arte
- ❖ Bankuko kontuak ezingo dira itxi apirilaren 30era arte. Neurri hori ekainaren 30era arte luzatuko da, funtsik ez izateagatik txekak atzera botatzen dituzten bankuko kontuak ezgaitzeko debekua barne
- ❖ Debekatuta dago komisioak kobratzea kutxazain automatikoetan eginiko operazioengatik
- ❖ Kredituak mikroETEentzat soldatak ordaindu ditzaten
- ❖ Zorren iraugipen-datak luzatzea ETE eta mikroETEentzat
- ❖ Zero tasako kredituak monontributista eta autonomoentzat, gehienez 150.000 ARS-koak

### Dirulaguntzak eta mailegu publikoak



- ❖ Aurrekontu-partidak handitu dira arlo kritikoetan
- ❖ Alimantar txartela indartu da elikadura premiei erantzuteko sektore txiroenetan
- ❖ Lan eta Produkzioko Larrialdietarako Laguntza Programa (ATP) zabaldu egin da, eta bere baitan hartzen du Estatuak ordaintzen duen soldata osagarri bat, krisian dauden sektore pribatuetako langileen soldataren % 50 estaltzeko. Horrez gain, zero tasako kreditu bat eskaintzen da monontributista eta autonomoentzat. ATP programa zabaldu egin da eta orain bere baitan hartzen ditu 800 langile baino gehiago dituzten enpresak, baldin eta % 30eko beherakada izan badute fakturazioan. Enpresek epe luzeagoa dute laguntza eskaerak erregistratzeko. Aurreikusten da 3 milioi langilek euren soldatak jasoko dituztela ATPri esker; kalkuluen arabera, ekainean Estatuak 2,7 milioi ordaindu beharko ditu soldata pribatutan; kalkulu ofizialen arabera, maiatzeko ATPa apirilekoa baino % 20 handiagoa izango da
- ❖ Formula berri bat ezarri da argindarraren kontsumoa kalkulatzeko etxebizitzetan
- ❖ Elikagai eta premia biziko produktuen gehienezko prezio politika bat ezarri zen ekainaren 30era arte
- ❖ Estatuaren laguntzaren bat iritsi da etheen % 89ra (IFE; ATP; AUH; "Alimantar" txartela, pentsioak)
- ❖ Errepideko bidaiarien motorrezko garraio-enpresentzako laguntzak (500 milioi ARS)




## Lan-indarra

- ❖ 60 egunez ezingo da langilerik kaleratu edo kontraturik eten; neurri hori uztailearen 31ra arte luzatu da
- ❖ Familientzako larrialdietarako diru-sarrera langabetuentzat eta etxe partikularretako langileentzat; maiatzean zehar indartu egingo da neurri hori
- ❖ Langabezia-aseguru handiagoa. Martxoaren 15etik apirilaren 15era bitartean ugaritu egin ziren kaleratzeak eta kontratu-eteteak, eragina izan zutelarik 300.000tik gora langilerengan. Langabeziako prestazioen iraungipen-data abuztuaren 31ra arte luzatu da
- ❖ Hilabete honetan gobernuak (Anses) apirileko soldataren % 50 ordainduko die 1,3 milioitik gora langileri, Lan eta Produktzio Larrialdietarako Laguntza Programak (ATP) koronabirusak kolpatutako enpresentzat aurreikusitako hobari bezala
- ❖ Buenos Airesko metropoli-guneko (AMBA) langileen % 8ak enplegua galdu du, eta % 39aren enplegua etenda dago
- ❖ Aztertzen ari dira ordainsaria (urteko soldata osagarria) hileko 6 kuotatan banatzeko aukera, herrialde osoko ETE industrialen % 54k adierazi baitute ezingo diotela aurre egin ordainketa horri




## MUGAK

### Zerbitzu logistikoak eta barneko garraioa

-  Martxoaren 21etik, bertan behera gelditu dira **kabotaje-hegaldiak, -autobusak eta -trenak**

### Biztanleriaren mugikortasuna




-  **Prebentziozko eta derrigorrezko isolamendu soziala (ASPO)** herrialde osoan martxoaren 19tik; hasieran, martxoaren 31ra arte. 4 aldiz luzatu da jadanik: lehenbizi apirilaren 13ra, ondoren apirilaren 26ra, gero maiatzaren, **eta azkenik ekainaren 7ra**. Zirkulatu ahal izateko baimen bat tramitatu behar da. Berrogeialdia maiatzaren 10era arte luzatu zen, eta probintzia bakoitzeko gobernadoreek eskumena dute salbuespenak aplikatzeko, toki bakoitzeko jarduera komertzialaren eta biztanle kopuruaren arabera. Mugak bere horretan mantentzen dira 500.000 biztanle baino gehiagoko hiriguneetan

Apirilaren 20tik aurrera, 11 dira berrogeialditik salbuetsita dauden jarduerak; maiatzaren 12az geroztik, salbuetsitako jarduera gehiago daude: liburu-dendak, jostailu-dendak, lurrin-dendak, etxe-aldaketak (astelehenetik ostiralera) eta paseoak 15 urte baino gutxiago dituztenekin (asteburuetan)

- Maiatzaren 12tik aurrera onartutako jarduera batzuk murriztu egin dira berriro:
- Murriztu egin dira aire libreko merkataritza-guneetako jarduera komertzialak, non % 80tik gorako aglomerazioak identifikatu baitira
- Murriztu egin da garraio publikoaren erabilpena (soilik oinarrizko langileentzat)
- 5 gunetan ezin daiteke egin garraio aldaketarik

-  **Eskolak** itxita daude martxoaren 16tik; ez dago itzulera data zehatzik

### Mugetako egoera

-  Martxoaren 26az geroztik, debekatuta dago Argentinan **sartzea portuetatik, aireportuetatik, nazioarteko pasabideetatik, muga-zentroetatik** eta beste edozein sarbidetatik  
Aireko jarduera komertziala normaltasunez funtzionatzen hasiko da irailaren 1etik aurrera